

Ongi etorri **HEZKUNTZARA** **Lanean hasteko Gida**

Kaixo, lankide!

Esku artean duzun gida honek bidelagun izan nahi du parean zabaltzen ari zaizun bidegurutzean erabaki onenak hartu ahal izateko. Zorionez, lanerako eremu zabal bezain oparoa da hezkuntza eta zure ekarpena ezinbestekoa dugu eguneroko lanarekin jendarte inklusibo, euskaldun eta askeago bat sortzeko.

Bide horretan, kontutan izan beharko duzu adibidez ezberdina dela lanean hasteko modua Nafarroako Eskola Publikoan edo Iparraldeko Seaska ikastolan. Edota izen emate prozedurak desberdinak direla EAEko eskola publikoko irakasle zerrendetan, Heziketa Bereziko zerrendetan, Haurreskolak Partzuegoko zerrendetan edo Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan. Horregatik, eremuz eremu aurkezten dizugu herrialde eta erakunde bakoitzean lanean hasteko prozedura.

*Ongi etorri
Euskal Eskola
Publiko
Komunitarioaren
aldeko borrokara!*

2026ko ekaina

LAB¹
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA



HEGO EUSKAL HERRIKO ESKOLA PUBLIKOA

EAEko IRAKASLEAK



IZEN EMATEA

Irakaskuntzarako gaitzen zaituen titulua (edo egiaztagiria) izanik izen ematea beti dago irekita: <https://labur.eus/A6KAz>



ZERRENDETAN LANEAN HASTEA

Izena eman ostean langileak ez dira zuzenean ordezkapen-
tarako zerrenda orokorrean sartzen. Horregatik, lanerako
deituak izango dira soilik zerrenda orokorrean langilerik
gelditzen ez bada. Zerrenda orokorrean sartzeko, izen eman
duenak birbaremazioak* egin beharko ditu.

Zerrenda orokorrean dauden ordezkoez, ordezkagune* pla-
tagormaren bidez egingo dituzte lan egiteko eskariak. <https://labur.eus/wRhY3>



ESLEIPENAK

Uztailean burutzen dira. Ordezkoek aukera dute hurrengo
ikasturterako eskaintzen diren lanpostu huts guztiak ikusi
eta nahieran aukeratzeko. Eskaintako lanpostu guztiek dute
ikasturte osoko iraunaldia eta parte hartzea ez da derrigorra.
Ezinbestekoa da ordezkapen-
tarako zerrenda orokorrean
egotea parte hartu ahal izateko.

Parte hartzeko hezigune plataforma erabili behar da: <https://labur.eus/VXyPx>

Kurtso hasieran ere burutzen da beste lanpostuak esleitzeko
prozedura orokor bat. Esleipenean banatu gabeko lanpostue-
kin, ordezkapenekin... Ordezkagunea plataforma bidez bana-
tuko dira gerora.



BIRBAREMAZIOAK

Azaroan burutzen dira. Zerrendetan abuztuak 31 baino lehen
izena eman dutenek birbarematuko dute. Bertan, titulu eta
lan-esperientzia zenbatzen dira. Zein herrialdetan eta zein
lanaldirekin lan egin nahi den zehazten da. Ezarritako bal-
dintzak hurrengo ikasturtean aplikatzen dira.



ORDEZKAGUNEA

Webgunearen bidez egunero eguerdian eskaintzen dira
zein lanpostu eskaintzen diren ordezkapen-
tarako eta lan-
gileak bere aukeren arabera (birbaremazioan ezarritakoak)
aukeratu dezake zein lanpostu nahiko lituzkeen eskuratu.
Langileak ez daude parte hartzera behartuta edota gustuko
ez duen lanposturik aukeratzera, baina inork aukeratzeko ez
duen lanposturik balego, Hezkuntza Sailak puntuazio txikie-
na duen langileari behartuta edo modu "forzosoan" esleituko
dio lanpostua.





NAFARROA GARAIKO IRAKASLEAK



IZEN EMATEA

3 modu daude:

1. **Oposizioak** deitzen direnean parte hartuz. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda orokorrean sartuko dira irakasleak, baldin eta:
 - Oposizioaren lehenengo ariketara aurkeztu izana.
 - Oposizioaldian puntuazio positiboa jaso izana.
2. **Zerrendak irekitzen direnean** izena emanaz. Hezkuntza Departamentuak ikasturte bakoitzean gutxienez bi aldiz irekiko ditu berariazko zerrendak: <https://labur.eus/9m8bF>
3. **Ezohiko kontratazioak:** Ostegunero web deialdien bidez.



ESLEIPENAK

Oposizioek baldintzatzen dute esleipenaren eguna. Oposiziorik izan ez duten espezialitateek ekainean egin ohi dute esleipena. Oposiziodunek abuztuaren amaieran.



LANPOSTUEN ESLEIPEN TELEMATIKOA

Kontratazio deialdi guztiak Nafar Gobernuak aplikazioan daude ikusgai: <https://appseducacion.navarra.es/atp/index.xhtml>

LEP DEIALDIAK NAFARROA GARAI + EAE

- **Urteko programazioa eta unitate didaktikoa:** LEP prozesuetan parte hartzeko beharrezkoa da bakoitzak sortutako urteko programazio didaktikoa aurkeztea. Baita deialdian zehazten den unitate didaktiko kopurua ere. Lan hau egin ezean ezin da LEP prozesuan aurrera egin.
- **Azterketa teorikoa:** zozketa bidez gaitetik gaien artetik ausaz aukeratzen dira hainbat gai eta oposaketagileak gai horietako bat garatu behar du.
- **Kasu praktikoan:** oposaketagileari egoera bat aurkeztu eta egoera horri pedagogikoki nola erantzun azaldu behar du.
- **Defentsa:** oposaketagileak ahoz aurkeztu behar du urteko programazioa eta zoriz egokitutako unitate didaktiko bat.
- **Merituak:** puntuak pilatzen dira lan egindako urte, ikastaro, titulazio... bidez.



HEZIKETA BEREZIA EAE

Heziketa Bereziko kolektiboko kategoria desberdinetako langileak daude: Fisioterapeutak, Gizarte langileak, Transkribatzaile eta Material egokitzzaileak, Hezkuntza Laguntzako Espezialistak, Zeinu Hizkuntzako Interpreteak eta Okupazio Terapeutak.

GAITZEN DUEN TITULAZIOA

KATEGORIA	TITULAZIOA
Fisioterapeuta	<ul style="list-style-type: none">> Fisioterapiako diplomadunaren titulua.> Fisioterapiako gradu-titulua.
Gizarte-langilea	<ul style="list-style-type: none">> Gizarte-laguntzailearen/gizarte-langilearen titulua.> Gizarte-lanean diplomaduna.> Gizarte-laneko gradu-titulua.
Transkribatzailea Material egokitzzailea	<ul style="list-style-type: none">> Administrazio-kudeaketako teknikariaren titulua edo baliokideak.> Administrazioko eta finantzetako goi-mailako teknikaria edo baliokideak.
Hezkuntza laguntzako espezialista	<ul style="list-style-type: none">> Gizarteratzeko goi-mailako teknikariaren titulua edo baliokideak.> Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikari-titulua edo baliokideak.
Zeinu hizkuntzako interpretea	<ul style="list-style-type: none">> Zeinu-hizkuntzaren interpretazioko goi-mailako teknikari-titulua.> Komunikazio-bitartekotzako goi-mailako teknikariaren titulua.> Gradua, Espainiako zeinu-hizkuntzako eta gorren komunitatean
Okupazio terapeuta	<ul style="list-style-type: none">> Terapia Okupazionalen diplomadun titulua.> Terapia Okupazionalerako gradu-titulua.



ZERRENDETAN IZENA EMATEA

Heziketa Bereziko zerrendetan sartzeko kolektibo bakoitzeko titulazioa aurkeztu behar da eta euskara maila C1. Lotura honen bidez eman dezakezu izena. <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berezia-zerrendak-irekitzea-ikastetxe-publikoetan-irekita-jarraitzen-diren-zerrendak/web01-a3holaei/eu/>



ZERRENDETAN LANEAN HASTEA

Izena eman ostean izangaiak hilabeteko epea itxaron behar du sistemak aktibo ipini arte.



ESLEIPENAK (COCU)

Uztailean burutzen dira. Parte hartzeko beharrezkoa da “lanerako prest” egoeran egotea dago-kion kategorian. Esleipena izan baino lehen, denbora tarte bat irekiko da izangaiek lan egoera, lanaldia, lurraldea edo “lanerako ez prest” aukerak aldatzeko. Aldaketa hauek bakarrik dute eragina udako esleipenerako. Ordezkoek aukera dute hurrengo ikasturterako eskaintzen diren lanpostu huts guztiak ikusi eta nahieran aukeratzeko. Parte hartzeko Hezigune plataforma erabili behar da: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/>

Ikasturte hasieran ere burutzen da lanpostuak esleitzeko beste prozedura orokor bat udako esleipenean banatu gabe geratu diren lanpostuekin; Odezkgunea plataforma bidez egiten da.



BAREMAZIOA/BIRBAREMAZIOA

Azaroan burutzen dira. Bertan, titulu eta lan-esperientzia zenbatzen dira. Zein herrialdetan eta zein lanaldirekin lan egin nahi den zehazten da. Ezarritako baldintzak hurrengo ikasturtean aplikatzen dira.



ORDEZKAGUNEA

Webgunearen bidez egunero eguerdian eskaintzen dira hurrengo egunetarako ordezkapenak. Langileak birbaremazioan ezarritako lehentasunen arabera aukeratu dezake zein lanpostu nahiko lukeen eskuratu. Aukera dago “lanerako prest” eta “ez lanerako prest” ipintzeko. Langileak ez daude parte hartzera behartuta edota gustuko ez duen lanposturik aukeratzera, BAI-NA inork aukeratzen ez duen lanposturik balego, Hezkuntza Sailak puntuazio txikiena duen langileari nahitaezko moduan esleituko dio lanpostua. <https://ordezkagunea.euskadi.eus/eu/>



LAN ESKAINTZA PUBLIKOA ETA BITARTEKOTASUNA

2025ean LABek sinatutako Lan Hitzarmen berrian jaso bezala, bitartekotasun tasa %5a baino handiagoa ez izateko, hiru urtean behin, hautaketa-prosezuak deituko ditu Hezkuntza Sailak heziketa bereziko kategorian guztietarako lanaldi osoko plazak betetzeko. <https://irakas-kuntza.lab.eus/heziketa-berezia-eae-lan-legepeko-irakasle-eta-hezitzaileen-hitzarmen-berria-2025eko-uztaila/>

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA



GAITZEN DUEN TITULAZIOA ETA HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan izena emateko beharrezko ikasketa-titulua:

- Haur-hezkuntzako irakasle-titulua: Gradua edo Diplomatura
- Haur-hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua
- Haurtzaindegietako teknikari espezialista titulua.
- Euskara titulua: Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C-1 maila, Hezkuntzako 2. Hizkuntza eskakizuna, EGA edo horien baliokideren bat izatea.



ZERRENDETAN IZENA EMATEA

Ikasturtean behin zerrendetan izena eman ahalko da baremazio-birbaremazioaldian. Deialdia azaroan egiten ohi da eta www.haurreskolak.eus web orrian argitaratzen da.

Gaitzen duen titulazioa eta hizkuntza eskakizuna izatean, interesa duten hezitzaile zein irakasleek epe ofizialen barruan aurkeztu behar dituzte eskabidea eta eskatutako dokumentazioa.



ZERRENDETAN LANEAN HASTEAK

Behin betiko zerrendak argitaratuta (ekaina-abuztua) hautagaiak <https://hezisarea.euskadi.eus/es/login> plataforman parte hartu dezakete eta ordezkapenak aukeratu lanean hasteko. Bajak, baimenak edo langile beharrak betetzeko lan-eskaintzak aukeratu ditzakete. Hezisa-rean lanerako prest edo aldi baterako bajan (justifikatu gabe) egon daitezke hautagaiak: [Haurreskolak Partzuergoko Hezitzaile Ordezkoen araudia](#).

Lan eskaintzak zerrendaren hurrenkeraren arabera esleituko dira hautagaien jardunak eta zonaldeak errespetatuz. Horretarako funtsezkoa da datu pertsonalak eta lanerako prestasuna eguneratuta izatea.



HEZISAREA

<https://hezisarea.euskadi.eus/es/login> plataformaren bidez, Haurreskolak Partzuergoko hautagaiak telematikoki eska ditzakete hezitzaile-plazak betetzeko eskaerak. Plataformaren funtzionalitate nagusiak honako hauek dira:

1. Oinarrizko datu pertsonalak berrikustea/eguneratzea/biltzea
2. Plazak eskatzea:
3. Hautagaien zerrendetan posizioa kontsultatzea.
4. Esleipenaren xehetasunak kontsultatzea.

Haurreskolak Partzuergoak sortutako GIDA-n Hezisa-rearen ordutegiak eta hautagaien lan egoeraren kudeaketaren inguruko informazio erabilgarria zehazten da, besteak beste.



IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK

Ikasturte berriari begira, Haurreskolak Partzuergoak behin-behinean betetzeko lanpostu hutsen (bakanteak) eskaitza egiten du Esleipen publiko bidez edota araudian zehaztu bezala. Esleipenak zerrendaren hurrenkerari eta indarrean dagoen araudian ezarritako



irizpideei jarraituz egiten dira. Haurreskolak Parzuergoko Hezitzaile Ordezkoen araudia 2025eko otsailaren 10ean LABek sinatutakoa.



BAREMAZIOA/BIRBAREMAZIOA ETA ZERRENDIA IREKIERA

Baremazio-Birbaremazio deialdia azaroan egiten ohi da, zerrenda irekitzearekin batera eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio> web orrian argitaratzen da. Hezitzaile ordezkoen zerrendak urtero eguneratzen dira, zerbitzu berriak emateko aukera aztertzeko eta aurrez egindako ordezkapen aukerak aldatu ahal izateko.

Zerrendetan izen-eman nahiz baremazio/birbaremazio prozesua on-line egiten da. <https://hezigunea.euskadi.eus/eu/inicio> ataritik, hau da, birbaremazioarako gaitutako aplikaziotik bertatik egin behar dira beharrezko aldaketa guztiak, eta baita meritu berriak alegatu eta egiaztatzen ere.



EGONKORTASUNA

2025eko otsailaren 10ean LAB sindikatuak sinatutako Lan Hitzarmenean jasotzen denaren arabera pertsonal finkoa hautatzeko prozesuak legedian ezarritako prozeduren arabera egingo dira. Hautaketa prozesu horietan eskainitako lanpostuak lanaldi osokoak izango dira. Hiru urtean behin Lan Eskaintza Publikoa (LEP) egin behar da, behin-behinekotasun tasa gehienez ere %5 izan dadin.

LEPan betetzeko lanpostu kopurua eta LEP eredia alde sozialarekin negoziatu behar dira..

ITUNDUAK

GIZARTE EKIMENA



IZEN EMATEA

- Sare sozialak eta prentsa begiratu.
- Ikastetxeetara curriculumak bidali
- Ikasturtean sortzen diren ordezkapen-entzarako, ikastetxe bakoitzeko webgunean sartu bakoitzak izan dezakeen lan poltsetan izen-emateko.
- Titulazioa eta Hizkuntz eskakizunak (EGA-C1 edo baliokidea) beharrezkoak dira (Anexo III-a begiratu).
- Ikastetxeen metodologia zein den kontuan hartuta, beste formakuntza-entzarren bat ere eskatu dezakete.



LAN-POLTSAK

- Kontratazio baldintzak Birkokapen batzorde baten bitartez zehazten dira.
- Batzorde horretan, zuzendaritzako kideek eta Langile ordezkariek parte hartzen dute lanpostuen zerrenden lanketan.
- Birkokapen prozedura bat dago ikastetxeetan sortzen diren bakanteak eta eszedenteak kudeatzeko. Sarearen barne mailan kudeatu ahal izateko.
- Nahiz eta Birkokapen prozesu zehaztu bat martxan egon, berme nahikorik ez du momentuz. LABetik horretan lanean gaude.

IKASTOLAK NAFARROA GARAIA ETA EAE

Euskal Herrian dauden ikastolak bi sare ezberdinetan elkartuta daude, Ikastolen Elkartea eta EIB (Eusko Ikastola Batza).

Ikastolen Elkarteko Ikastolak Euskal Herri osoan hedaturik daude, EIBkoak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Hego Euskal Herriko Ikastoletan, prozedura hurrengo da:



IZEN EMATEA

- Bete beharreko lanposturako eskaintza publikoa egiten da.
- Ikastolako web gunean, Ikastolen elkarteko web gunean, eta NIEren web gunean ere argitaratzen da.
- Lanpostuaren baldintzak eta eskakizunak adieraziko dira eta lanpostuaren ezaugarria. (kontratazio berria, aldi baterako ordezkapena etab). Era berean, hautagaiek eskabideak aurkezteko epea zehaztuko da.
- Beharrezko titulazioa eta EGA (edo parekidea) aurkeztu behar da.



KONTRATAZIOA

- Titularraren eta langileen ordezkariak modu parekidean osatutako Kontratazio Batzordea eratzen da EAEn eta kontratazio Mahaia Nafarroa Gaian.

- Batzorde honek finkatuko du barematze-ko prozedura zein izango den eta hautaketa prozesua nola arautuko den.
- Puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia kontratatuko du ikastolak.



LAN-POLTSAK

- Puntuazioaren ordena jarraituz, Lanpostua lortu ez duten hautagaiekin, zerrenda bat osatuko da ikasturteko lan-poltsa propioa edukitzeko helburuarekin.
- Ordezkapenak betetzeko zerrendan izenik ez badago, kontratazio batzordea eratuko da arestian aipatutako prozedura jarraituz.
- Irakasle diren Langile finkoek, eszedente izaera dutenean, birkokatuak izateko eskubidea dute. Beharrezko den titulazioa izanda, beraiek dute, berea ez den beste ikastola bateko lanpostua betetzeko eskubidea eta lehentasuna.

EIBkoak diren ikastolak, ez dute Kontratazio Batzorderik eratzen. Ikastola bakoitzak, kontratazio berrietarako edo ordezkapenatarako kontratazioetarako, bere prozedura du.

LAB sindikatuak beti eskatu du, Ikastolen Elkartea Partaidek jarraitzen duen prozedura bera, jarraitu dezala EIBkoak diren ikastoletan ere.

GIDA SINDIKALA

Maiz egiten ditugun galderei erantzuna



JARRAI GAITZAZU!



www.irakaskuntza.lab.eus

ARABA:

945258404

irakaskuntzaaraba@lab.eus

BIZKAIA:

944 706 900

irakaskuntzabizkaia@lab.eus

GIPUZKOA:

674 094 544

irakaskuntzagipuzkoa@lab.eus

NAFARROA:

948 221 130

irakaskuntzanafarroa@lab.eus

IPARRALDE:

+33 559595020

baiona@lab.eus

